BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5506

AGINDUA, 2011ko urriaren 17koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «zerbitzuak kanpora ateratzeko irizpideei buruz», Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko urriaren 19an hartutako Akordioan aurreikusitako jarduerak langileen eta zerbitzuen arloko Ikuskaritza Orokorrak bete ditzan.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 6. artikuluko 1.g) idatzi-zatiak Sail honi ematen dio langileen arloko ikuskaritza orokorraren eskumena eta horren 2. paragrafoak zehazten du egiteko hori beteko duela bere egitura organikoari buruzko Dekretuan ezartzen denaren arabera; eta, honi buruz, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 20. artikuluko 2.c) idatzi-zatiak Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari ematen dio zerbitzuei eta langileei dagokien ikuskaritza orokorraren berezko eginkizunen betekizuna; eta horren Azken Xedapenak Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari baimena ematen dio hura garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Horrekin lotuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2010eko urriaren 19an egindako bileran, «zerbitzuak kanpora ateratzeko irizpideei buruzko» akordio bat hartu zuen eta, beraien edukien artean, seigarren eta zortzigarren akordioek jasotzen dute zerbitzuen administrazio-kontratuei dagozkien langileen eta zerbitzuen arloko Ikuskaritza Orokorraren berezko jarduerak, bai aldez aurretik Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren baimena jaso behar dutenei bai horien gainean egon daitezkeen ondorengo ikuskaritzei dagozkienak.

Horregatik guztiagatik, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluarekin eta Azken Xedapenarekin bat etorriz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2010eko urriaren 19ko Akordioak agintzen duenari jarraituz, eta adierazitako araudiaren babesarekin, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Eduki objektiboa.

1.– Langileen eta zerbitzuen arloko Ikuskaritza Orokorrak Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2010eko urriaren 19ko «zerbitzuak kanpora ateratzeko irizpideei buruzko» Akordioaren seigarren eta zortzigarren akordioetan jasotako ikuskatze-eginkizunen berezko jarduerak beteko ditu, Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren mendekotasun organiko eta funtzionalaren pean.

2.– Horretarako, langileen eta zerbitzuen arloko Ikuskaritza Orokorrak beharrezkoak diren ikuskatze-jarduera guztiak egingo ditu, 2. artikuluan adierazten diren erakunde kontratugileen organo eskudunei dagokienez:

a) formalizatu aurretik Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren baimena behar duten zerbitzuak kontratatzeko espedienteetan, datu jakin batzuk egiaztatzeko edo kontratazio-organoak lehenago emandako informazioa osatu ahal izateko. Horiek azkenik jasoko dira Funtzio Publikoaren

Zuzendaritzak, bere ebazpen-proposamenak eman aurretik, eskatutako kasuan kasuko banakako ikuskatze-txostenetan.

b) dagoeneko esleituta dauden zerbitzuen kontratuetan, horien helburu, egituraketa, betearazpen eta gorabeherei buruzko ondorengo aldizkako ikuskatze eta kontrola egiteko, Funtzio Publikoaren Sailburuordetzak zuzenean agintzen duenaren arabera edo onartutako ikuskatze-plan bakoitzean, eta araua betetzeari buruzko egiaztapenak kasuan kasuko banakako ikuskatze-txostenetan amaituko dira.

2. artikulua.– Eduki subjektiboa.

Adierazi diren langileen eta zerbitzuen arloko Ikuskaritza Orokorraren jarduerak egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta alor publikoko sozietate, fundazio eta partzuergoek egiten dituzten zerbitzuen kontratuetan.

3. artikulua.– Laguntzeko betebeharra.

Aurreko 2. artikulu horretan aipatu diren erakundeen administrazio-organoak elkarlanean aritu beharko dira langileen eta zerbitzuen arloko Ikuskaritza Orokorrarekin azken honen ikuskatzepean dauden zerbitzuen kontratazio-espediente guztiei dagokienez, eta horretarako:

a) agindutako ikuskatze-jarduerak burutu ahal izateko beharrezko informazio guztia eman beharko dute.

b) ikuskatzeak egiten direnean sor daitezkeen gaien egiaztatze pertsonala eta materiala egitea utzi beharko dute.

c) eskatu zaizkien beharrezko aurrekari eta dokumentuak zuzenean erreklamatu beharko dizkiete enpresa esleipendunei.

4. artikulua.– Ikuskatze-planak eta ikuskatze zehatzak.

1.– Aldian-aldian, Funtzio Publikoaren Sailburuordetzak onartuko ditu, langileen eta zerbitzuen arloko Ikuskaritza Orokorraren proposamenez, bere ikuskapen eta kontrolpeko zerbitzuen kontratuei buruz beharrezkoak diren ikuskatze-planak, baita kasuan kasu bidezkoak diren ikuskatze zehatzak zuzenean agindu ere.

2.– Kontratazio-espedienteen izapidetze-administratiboaren ardura duten langileen ikuskatze-jarduerak burutu ahal izateko, beharrezkotzat jotzen diren dokumentuak bidaltzeko eskatu ahal izango da, zuzeneko komunikazioa hasi beharrezkoak diren bilerak eginez edo juridikoki eskatzen diren bestelako edozein jarduera egin ere.

3.– Ikuskaritzak egiten dituen dokumentazioa, datuak edo txostenak bidaltzeko eskaerak, jaso eta hamar eguneko epean bete egin beharko ditu eskaera jaso duen erakundeak.

5. artikulua.– Akreditazioa.

Langileen eta zerbitzuen arloko Ikuskaritza Orokorraren arduradunek Funtzio Publikoaren Sailburuordetzak emandako administrazio-akreditazio egokia edukiko dute, ikuskatze-eginkizun publikoaren jarduera berme eta nabarmentasun osoz egin ahal izateko.

6. artikulua.– Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren eskumenekoa den ikuskatze-eginkizunari laguntza.

Langileen eta zerbitzuen arloko Ikuskaritza Orokorrak beharrezko laguntza emango dio Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari honek Jaurlaritzaren Kontseilura bidali behar dizkion agindu honek sorburu duen Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko urriaren 19ko Akordioan aurreikusitako txosten propioak egiteko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Garapena.

Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari ahalmena ematen zaio Agindu hau eraginkor izateko beharrezkoak izan litezkeen alderdi osagarrien garapena egin dezan.

Bigarrena.– Ordezkatzea.

Agindu honek, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2010eko urriaren 19an egindako bileran, «zerbitzuak kanpora ateratzeko irizpideei buruzko» Akordioa burutzeko eman denak, kanpoko zerbitzuen kontratazioari dagokion Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko abenduaren 17ko Agindua ordezkatzen du.

Hirugarrena.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jarriko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 17a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.